

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

5/2021 Foru Dekretu-Araua, irailaren 7koa, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aurrerakin likido bat ezartzen duena.

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, derrigorrezko egin zuen fakturazio sistemetan zergadunek neurri teknologiko aurreratuak erabiltzea, betiere jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen tributazioaren kontrola ahalbidetzeko asmoz. Horretarako, aipatutako xedapena dela medio, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua, Ezegoiiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua aldatu ziren.

Haren helburua zen sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioa ezartzea, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko. Obligazio horri TicketBAI betebeharra deitu zaio.

TicketBAI obligazioa betetzea errazteko, 3/2020 Foru Arauak aldi baterako pizgarri fiskalak ezarri zituen, kuotako kenkari moduan, sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiiliarren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Bestetik, maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurri buruzkoak, 15. artikuluan eta abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19aren bigarren olatuaren ondorioak arintzeko premiazko zerga neurri buruzkoak, 15. artikuluan aldi baterako pizgarri fiskalak ere ezarri zituzten, kuotako kenkari moduan, aurreko paragrafoko pizgarriekin bateratutako mugak jarrita, betiere saltoki txikiei merkataritza elektronikorantz digitalki eraldatzen laguntzeko asmoz, txikizkako merkataritzan aritzen diren pertsona fisikoei eta mikroenpresei eta enpresa txikiei zuzenduta.

TicketBAI obligazioa exijigarria izan aurretik hura borondatez betetzea sustatzeko asmoz, martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituenak, aurretik aipatutako pizgarri fiskal osagarriak ezarri zituen 4. eta 5. artikuluetan: TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkaria, eta TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua. Azken finean, pizgarri berri horiek berekin dakarte kenkari arruntan aldean kopuru kengarriak gehitzea, betiere ehuneko kengarri handiago batean (100eko 60, 100eko 30 arruntaren aldean) eta kenkari oinarriaren behe mugaren atalase altuago batean (1.500 euro, 500 euro arruntan aldean) gauzaututa.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral-Norma 5/2021, de 7 de septiembre, por el que se establece un anticipo líquido de las deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI.

La Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal, implantó, mediante la modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de no Residentes y de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de las y los contribuyentes en los sistemas de facturación, que permitirá el control de la tributación de las personas físicas que desarrollen actividades económicas y de las personas jurídicas.

Se trata de la obligación de utilización de un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, denominada obligación TicketBAI.

A fin de facilitar el cumplimiento de la obligación TicketBAI la citada Norma Foral 3/2020 estableció incentivos fiscales de carácter temporal, en forma de deducciones en la cuota, en el impuesto sobre sociedades, en el impuesto sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes y en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.

Por otra parte, los artículos 15 de los Decretos Forales-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, y 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19 establecieron también incentivos fiscales temporales, en forma de deducciones en la cuota, con límites comunes con los incentivos citados en el párrafo anterior, para apoyar la transformación digital del pequeño comercio hacia el comercio electrónico y dirigidos tanto a personas físicas como a microempresas y pequeñas empresas que se dedican al comercio minorista.

Al objeto de impulsar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI con anterioridad a la fecha de su exigibilidad, el Decreto Foral-Norma 2/2021, de 23 de marzo, de medidas tributarias extraordinarias adicionales relacionadas con la COVID-19 y de apoyo a la reanudación y digitalización de la actividad económica, estableció en sus artículos 4 y 5, incentivos fiscales adicionales a los citados anteriormente, bajo las rúbricas de deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI y de deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI. Estos nuevos incentivos suponen, en último término, el incremento de las cuantías deducibles respecto a las deducciones ordinarias, sustanciados en un mayor porcentaje deducible (60 por 100 frente al 30 por 100 ordinario) y un umbral más alto del límite inferior de la base de deducción (1.500 euros frente a los 500 euros ordinarios).

Ondoren, TicketBAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Araua kenkari horiek berak ezarri zituen, baina haiek aplikatzeko beharkizunak malgutu zituen, eta, aldi berean, 2/2021 Foru Dekretu-Arauren 4. eta 5. artikulua eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak indargabetu zituen.

TicketBAI obligazioa eta merkataritza elektronikorako eraldaketa digitala ezartzearen ondoriozko obligazioak betetzea errazte aldera, eta kontuan hartuta 2021ean eta 2022an inbertitzen duten zergadunek ezingo luketela 4/2021 Foru Dekretu-Arauan jasotako kenkari gehituetatik onurarik atera 2022 eta 2023ra arte, hurrenez hurren, orain proposatzen den foru dekretu-ara honen bidez ahalbidetu nahi da kenkari horien aurre-erapen likidoa inbertsio eta gastuak gauzatzeko momentuan egitea, betiere aurreko lehen 4 zergaldietan ordaindu diren eta autoliquidazioen aurkezpen epea lehendabiziko aurrerakin eskaera aurkeztu aurretik amaitu zaien zergen kargura.

Aurrerakin hori 2020ko ekitaldian egindako inbertsio eta gastuei dagozkien kenkari gehituen zatiari ere aplikatu behar zaio; izan ere, 4/2021 Foru Dekretu-Arauren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan jasotakoaren arabera, 2021eko zergaldiari dagokion autoliquidazioan aplikatu beharko lirarteke.

Hori horrela, zergadunek aurretik eskatuta, itzuli egingo da sozietateen gaineko zerga, establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, kasua zein den kontuan hartuta, aurreko zergaldietako autoliquidazioei dagokienez. Itzulketa horren muga 4/2021 Foru Dekretu-Arauren 1. eta 2. artikuluetan araututako kenkariaren zenbatekoa izango da, betiere kenkari gehitu horien artean TicketBAI kenkari arruntarengatik eta txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari arruntarengatik dagoeneko kenduta dauden zenbatekoak gutxituta.

Aurretik ordaindutako zergarik ez egoteagatik aurrerakin likidoa egitea ezinezkoa bada, osorik edo zati batean, aurreratu gabeko kenkariak osorik edo zati batean aplikatuko zaizkio, modu arruntean, inbertsioa edo gastua egiten den zergaldiari dagoen kuota osoari, 4/2021 Foru Dekretu-Arauan xedatutakoaren arabera. Modu korrelatiboan, aurrerakin likidoa jaso duten kenkariak ezin izango dira dagokion zergaren autoliquidazioaren kuantitatik kendu.

Bestetik, kenkari horien aurrerakina bezain berritzailea den figura bat arintasunez kudeatu ahal izateko eta, beraz, lortu nahi den helburua bete ahal izateko, beharrezkoa da doikuntza jakin batzuk sartzea kenkari horiek arautzen dituzten eta gaur egun indarrean dauden xedapenetan.

Lehenik eta behin, zergadun bakoitzari dagokion kenkariaren aurrerakina kalkulatu ahal izateko, beharrezkoa da kenkari horiek sinplifikatzea ondasun erkidegoen bidez eta errentak esleitzeko araubidean dauden beste entitate batzuen bidez jarduerak egiten dituzten zergadunen kasuan. Izan ere, gaur egungo konfigurazioak ez du haiek aurreratzeko aukerarik ematen.

Era berean, bidegabeki aurreratu edo aplikatu diren kenkari gehituak erregularizatzeko modua ezarri behar da, TicketBAI betebeharra araudian jarritako baldintzetan borondatez aurreratzeko baldintza betetzen ez den kasuetarako.

Azkenik, TicketBAI kenkariaren egutegia egokitu behar da, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduari buruzko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuan ezarritako ezarpen egutegiarekin bat etortzeko, betiere une honetan dagoen inkongruentzia ezabatuz.

Con posterioridad, el recientemente aprobado Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI, estableció esas mismas deducciones incrementadas pero flexibilizando aún más los requisitos para su aplicación, a la vez que derogaba los artículos 4 y 5 y las disposiciones adicionales primera y segunda del referido Decreto Foral-Norma 2/2021.

A fin de facilitar el cumplimiento de las obligaciones derivadas de la implantación de la obligación TicketBAI, y la transformación digital hacia el comercio electrónico, y dado que las y los contribuyentes que inviertan en los años 2021 y 2022 no podrían beneficiarse de las deducciones incrementadas previstas en el referido Decreto Foral-Norma 4/2021 hasta bien entrados los años 2022 y 2023, respectivamente, este decreto foral-norma pretende posibilitar el anticipo líquido de dichas deducciones al momento en que se realicen las inversiones y los gastos con cargo a los impuestos abonados en los 4 períodos impositivos inmediatos anteriores cuyo plazo de presentación haya finalizado con anterioridad a la presentación de la primera solicitud de anticipo.

Dicho anticipo es aplicable, asimismo, a la parte de las deducciones incrementadas correspondientes a inversiones y gastos efectuados en el ejercicio 2020 que, en virtud de lo previsto en las disposiciones adicionales primera y segunda del Decreto Foral-Norma 4/2021 anteriormente citado, debieran ser aplicadas en la autoliquidación correspondiente al período impositivo 2021.

Así, se va a proceder, previa solicitud por parte de las y los contribuyentes, a la devolución del impuesto sobre sociedades, sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes o sobre la renta de las personas físicas, según el caso, correspondiente a las autoliquidaciones de períodos impositivos previos. Esa devolución tendrá como límite la cuantía a la que asciendan las deducciones reguladas en dichos artículos 1 y 2 del Decreto Foral-Norma 4/2021, minorada en los importes ya deducidos por dichas deducciones incrementadas, así como por las deducciones TicketBAI y para la transformación digital del comercio minorista ordinarias.

En el supuesto de que no se pueda proceder a este anticipo líquido, en todo o en parte, por falta de impuesto previo abonado, las deducciones no anticipadas se aplicarán, en todo o en parte, sobre la cuota íntegra correspondiente al período impositivo en que se lleve a cabo la inversión o gasto correspondiente, de la forma ordinaria según lo dispuesto en el citado Decreto Foral-Norma 4/2021. De manera correlativa, las deducciones generadas que hayan sido objeto de anticipo líquido no podrán deducirse de la cuota íntegra de la autoliquidación del impuesto correspondiente.

Por otro lado, para que una figura tan novedosa como el anticipo de estas deducciones sea gestionable con agilidad y cump-la, por tanto, la finalidad que persigue, se requiere la introducción de determinados ajustes en las disposiciones actualmente vigentes que regulan dichas deducciones.

Así, en primero lugar, para que pueda calcularse el anticipo de deducciones que corresponde a cada contribuyente, resulta necesario simplificar las citadas deducciones en el caso de contribuyentes que realicen actividades a través de comunidades de bienes y otras entidades en régimen de atribución de rentas, dado que su actual configuración no permite su anticipo.

Asimismo, debe establecerse la forma de regularización de las deducciones incrementadas indebidamente anticipadas o aplicadas, para el caso de incumplimiento de la condición de anticipar voluntariamente la obligación TicketBAI en las condiciones previstas.

Finalmente, es necesario ajustar el calendario de la deducción TicketBAI y hacerlo coincidir con el calendario de implantación establecido en el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI, eliminando así la incongruencia existente en este momento.

Xede horrekin, bada, onartu egiten da foru dekretu-arau hau, artikuluko bategi eta sei azken xedapenez osatuta dagoena.

Artikulu bakarrean, kenkari gehitu horiek aurretik jasotzeari buruzko erregelak ezartzen dira.

Azken xedapenetako lehenengotik laugarrenera bitartekoek lau xedapen aldatzen dituzte, kenkaria aurreratu ahal izateko egin beharreko aldaketak sartzeko.

Azken xedapenetako bosgarrenak eta seigarrenak foru dekretu-arauan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko araugintza-ko ahalmena ematea erregulatzen dute, bai eta hura indarrean jartzea ere.

Proposatutako neurrien izaerak eta unean uneko egoerari premiazko erantzuna eman beharrak foru dekretu-araua berehala onartzea eskatzen dute. Izan ere, jadanik 2020. urtetik aurrera, TicketBAI obligazioa bete behar duten zergadunek obligazio hori betetzera edo txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalera bideratutako inbertsioak eta gastuak egin ahal izango dituzte, eta, beraz, dagoeneko haien finantzaketa beharrak sortu izan dira edo sortzeko zorian egon daitezke. Hortaz, onura fiskalak berehala aurreratzeko aukera lagungarria izango da, TicketBAI obligazioa aurretik eta borondatez bete dadin. Hori guztia dela eta, komeni da neurri horiek presazko prozeduraren bitartez eta foru dekretu-arau baten bidez onartzea.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du presazko arazoak daudenean Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen berezi horiek foru dekretu-arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkotutako izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aurrerakina.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta gauzatzen badituzte TicketBAI betebeharra borondatez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurri buruzko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauren 1. artikuluan jasota dagoen TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkaria eta foru dekretu-arau beraren 2. artikuluan jasota dagoen TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua aplikatzeko eskubidea duten inbertsio eta gastuak, neurri horien aplikazioa aurreratu ahal izango dute aipatutako 1. eta 2. artikuluetan eta artikulu honetan jasotakoaren arabera.

Ezingo da aurreratu zergadunek aurrerakina eskatu aurretik efektiboki aplikatu dituzten kenkariaren zatia. Beraz, aurrerakin hori eskatzean aplikatu gabe dagoen kenkari zatia baino ezingo da aurreratu.

2. Aipatutako kenkariak aurreratu ahal izango dira, aurreko lehen 4 ekitaldietako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan edo establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan sortutako kuotaren kargura, dagokionaren arabera, betiere haien autolikidazioen aurkezpen epea lehendabiziko aurrerakin eskaera aurkeztu aurretik amaitu bada.

Con este propósito se aprueba el presente decreto foral-norma, que está compuesto de un artículo único y seis disposiciones finales.

El artículo único recoge las reglas que regulan la percepción anticipada de las citadas deducciones incrementadas.

Las disposiciones finales primera a cuarta modifican cuatro disposiciones, para introducir los cambios necesarios para que el anticipo de la deducción sea posible.

Las disposiciones finales quinta y sexta regulan la habilitación normativa para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el decreto foral-norma y su entrada en vigor.

La naturaleza de las medidas propuestas y la necesidad de dar una respuesta urgente a la situación del momento, exige su aprobación inmediata. De hecho, ya desde el año 2020 es posible que las y los contribuyentes que próximamente estarán sometidos a la obligación TicketBAI puedan realizar las inversiones y gastos encaminados al cumplimiento de dicha obligación o a la transformación digital del comercio minorista, con lo que sus necesidades de financiación ya pueden haber surgido o pueden estar a punto de surgir. Así pues, la posibilidad de anticipar inmediatamente los beneficios fiscales correspondientes favorecerá el cumplimiento anticipado y voluntario de la obligación TicketBAI. Todo ello aconseja aprobar dichas medidas a través del procedimiento de urgencia y mediante un decreto foral-norma.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de urgencia, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Anticipo de las deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI.

1. Las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que lleven a cabo inversiones y gastos con derecho a la deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI, prevista en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI, y a la deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI, prevista en el artículo 2 del mismo decreto foral-norma, podrán anticipar la aplicación de las mismas con arreglo a lo previsto en los citados artículos 1 y 2, y en este artículo.

No será susceptible de anticipo aquella parte de las citadas deducciones que las y los contribuyentes hayan aplicado efectivamente con anterioridad a la solicitud de su anticipo. Por tanto, será susceptible de anticipo solo aquella parte de las deducciones que se encuentre pendiente de aplicación a la solicitud de dicho anticipo.

2. Las referidas deducciones se podrán anticipar con cargo a la cuota de los impuestos sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades, o sobre la renta de no residentes obtenida mediante establecimiento permanente, según corresponda, de los 4 períodos impositivos inmediatos anteriores, cuyo plazo de presentación haya finalizado con anterioridad a la presentación de la primera solicitud de anticipo.

Inoiz ere kenkarien aurrerakina ezingo da izan apartatu hone-tan jasotzen denetik eratorritako zenbatekoa baino handiagoa.

3. Azken 4 zergaldietako zergen kuotei dagokienez aurre-ratu daitezkeen kenkarien zenbatekoa kalkulatzean, muga hau-ek kontuan hartu behar dira, gainera, zergaldi horietako bakoit-zerako:

a) Sozietateen gaineko zergan eta establezimendu irau-
kor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan,
zergaldi horietako bakoitzari dagokionez aurreratu daitezkeen
kenkari zenbatekoa bi hauetatik txikiena izango da:

a') Aurreratu daitezkeen kenkari zenbatekoa, aurreko 1.
apartatuan jasotakoaren arabera zehaztua.

b') Zergaldiko kuota efektiboaren zenbatekoa.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zergaldi
horietako bakoitzari dagokionez aurreratu daitezkeen kenkari
zenbatekoa hiru hauetatik txikiena izango da:

a') Aurreratu daitezkeen kenkari zenbatekoa, aurreko 1.
apartatuan jasotakoaren arabera zehaztua.

b') Jarduera ekonomikoen etekinei dagokien kuota osoa-
ren zatia. Zenbateko hori zehazteko, etekin horiei aplikatu behar
zaie zergaldiko oinarri likidagarri orokorrari dagokion batez bes-
teko karga tasa, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Per-
sona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko
3/2014 Foru Arauaren 75. artikulua 2. eta 3. apartatueta
eta 77. artikuluan jasotako kontuan hartuta.

c') Zergaldiko kuota likidoaren zenbatekoa.

4. Uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. eta
2. artikuluetan jasotakoaren arabera aplikatutako kenkarien
eta artikulua honetan jasotakoaren arabera aurreratutako kenka-
rien baturak inoiz ere ezingo du gaintitu zergadunek egindako
inbertsio eta gastuei dagokien kenkariaren zenbatekoa.

5. Baldin eta, aurreko 2. eta 3. apartatueta jasotako
mugen ondorioz, inbertsio edo gastu jakin batzuei dagokien eta
aurreratu daitezkeen kenkaria ezin bada aurreratu, zati batean
edo osorik, aurreratu gabeko kenkariaren zatia kengarria izango
da 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. edo 2. artikuluan jasotako
epeetan, dagokionaren arabera.

6. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, kontuan
hartuko da, hala badagokio, zer eragin duten kuota likidoan bai
2020an zenbatetsitako galerengatik aplikatu daitezkeen 2019ko
aparteko kenkariak, zeina jasota baitago COVID-19ak eraginda-
ko osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiuntu-
razko zerga arloko neurriei buruzko maiatzaren 26ko 5/2020
Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluan, eta 2020ko galerengatik
aplikatu daitezkeen 2019ko aparteko kenkariak, zeina jasota
baitago COVID-19aren bigarren olatuaren ondorioak arintzeko
premiarazko zerga neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020
Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluan.

7. Baldin eta 2020ko ekitaldian sozietateen gaineko zer-
garen zergadunek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen
gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren ho-
geita bigarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatu
badute, edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta
establezimendu iraukor bidez aritzen diren ez-egoiliarren
errentaren gaineko zergaren zergadunek Gipuzkoako Lurralde
Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ur-
tarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren
xedapen gehigarrian eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zer-
garen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauaren hamargarren

En ningún caso procederá un anticipo de deducciones supe-
rior a la cuantía que se derive de lo dispuesto en este apartado.

3. A la hora de calcular el importe de las deducciones sus-
ceptible de ser anticipado con respecto a las cuotas de los im-
puestos de los 4 últimos períodos impositivos deberán tenerse
en consideración, además, para cada uno de dichos períodos
impositivos, las siguientes limitaciones:

a) En el impuesto sobre sociedades y en el impuesto sobre
la renta de no residentes que operen a través de establecimien-
to permanente, el importe de las deducciones susceptible de
ser anticipado correspondiente a cada uno de dichos períodos
impositivos será el menor de los dos siguientes:

a') El importe de las deducciones susceptible de ser anti-
cipado, determinado con arreglo a lo previsto en el apartado 1
anterior.

b') El importe de la cuota efectiva del período impositivo.

b) En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, el
importe de las deducciones susceptible de ser anticipado co-
rrespondiente a cada uno de dichos períodos impositivos será
el menor de los tres siguientes:

a') El importe de las deducciones susceptible de ser anti-
cipado, determinado con arreglo a lo previsto en el apartado 1
anterior.

b') La parte de la cuota íntegra correspondiente a los ren-
dimientos de actividades económicas, que será el resultado de
aplicar a dichos rendimientos el tipo medio de gravamen corres-
pondiente a la base liquidable general del período impositivo
considerando lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 75
y en el artículo 77 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero,
del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territo-
rio Histórico de Gipuzkoa.

c') El importe de la cuota líquida del período impositivo.

4. La suma de las deducciones aplicadas con arreglo a lo
previsto en los artículos 1 y 2 del Decreto Foral-Norma 4/2021,
de 27 de julio anteriormente citados, y de las anticipadas con
arreglo a lo previsto en este artículo, en ningún caso podrá ex-
ceder del importe de la deducción que corresponda a las inver-
siones y gastos realizados por las y los contribuyentes.

5. Cuando, como consecuencia de los límites previstos en
los apartados 2 y 3 anteriores, la deducción susceptible de ser
anticipada correspondiente a unas determinadas inversiones o
gastos no pueda ser objeto de anticipo, parcialmente o en su to-
talidad, la parte de deducción no anticipada será deducible en
los términos previstos en el artículo 1 o 2 del citado Decreto
Foral-Norma 4/2021, según corresponda.

6. En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se
tendrá en cuenta, en su caso, la incidencia sobre la cuota líqui-
da de la deducción extraordinaria de 2019 por pérdidas estima-
das en 2020 prevista en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma
5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyuntura-
les destinadas a la reactivación económica tras la emergencia
sanitaria del Covid-19, y de la deducción extraordinaria de 2019
por pérdidas en 2020 prevista en el artículo 1 del Decreto Foral-
Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias
urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19.

7. Cuando en el ejercicio 2020 los contribuyentes del im-
puesto sobre sociedades hayan aplicado la deducción prevista
en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral
2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Ter-
ritorio Histórico de Gipuzkoa, o las o los contribuyentes del im-
puesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto
sobre la renta de no residentes que operen a través de estable-
cimiento permanente, hayan aplicado, respectivamente, las re-
guladas en la disposición adicional trigésima sexta de la Norma
Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de
las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en la

xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatu badute, hurrenez hurren, eta baldin eta hiru zergen zergadunek 2020ko ekitaldian aplikatu badute maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoak, 15. artikuluan jasotzen duen txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria, 2020ko ekitaldian gauzatuako inbertsio eta gastuei dagokionez aurreratu daitekeen kenkari zatia zehazteko, 2020ko ekitaldian aplikatutako kenkariaren zenbatekoak deskontatu egingo dira, 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan jasotakoaren arabera.

Kasu horretan, aurreko 4. apartatuan jasotako muga zehazteko, kontuan hartu behar dira 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren lehen eta bigarren xedapen gehigarri jarraituz aplikatutako kenkariak ere.

8. Artikulu honetan jasotako kenkariaren aurrerakina zergadunak eskatu ondoren egingo da. Eskaerak bitarteko elektronikokoak erabiliz aurkeztuko dira, eta haietan kenkariaren aurrerakinari lotu ahal zaizkion inbertsio edo gastuen zenbatekoa adieraziko da.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko ditu kenkariaren aurrerakina eskatzeko eredu eta hura aurkezteko epeak eta moduak, bai eta haren aplikazio aurreratuarekin lotutako beste alderdi batzuk ere. Foru aginduak, halaber, eskaerak aurkezteko azken eguna ezarriko du.

9. Uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzetan TicketBAI betebeharra borondatez aurreratze baldintza ez betetzeak berekin ekarriko du artikulu honetan xedatutakoaren arabera aurreratutako kenkariak itzultzeko beharra.

Kasu horretan, zergadunak modu aurreratuan bidegabe kendu dituen kopuruak eta berandutze interesak gehitu behar dizkio baldintza bete ez den ekitaldian sortutako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota likidoari edo sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuota efektiboari, betiere dagokionaren arabera. Hala ere, zergadunak aukeran izango du ordainketa lehenago egitea.

Azken xedapenetako lehenena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Araua aldatzea.

Aldatu egiten dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren apartatu hauek:

Bat. Honela idatzita gelditzen da 1. apartatua:

«1. 2020ko urtarilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek zilegi izango dute aplikatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren ezartzen duen kenkaria, bertan ezarrita dauden baldintzen eta eskakizunen arabera, eta xedapen gehigarri honetan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.»

Bi. Edukirik gabe uzten da 3. apartatua.

disposición adicional décima de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, así como cuando las y los contribuyentes de los tres impuestos citados hayan aplicado en el ejercicio 2020 la deducción para la transformación digital del comercio minorista prevista en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, la cuantía de las deducciones susceptible de ser anticipada correspondiente a las inversiones y gastos realizados en dicho ejercicio 2020 se determinará descontando los importes de las deducciones aplicadas en dicho ejercicio 2020, de conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales primera y segunda de dicho Decreto Foral-Norma 4/2021.

En tal caso, a efectos de calcular el límite previsto en el apartado 4 anterior, se deberán tener en consideración también las deducciones aplicadas en virtud de las disposiciones adicionales primera y segunda de dicho Decreto Foral-Norma 4/2021.

8. El anticipo de deducciones previsto en este artículo se efectuará previa solicitud del contribuyente. Las solicitudes se presentarán a través de medios electrónicos y en ellas se consignará el importe de las inversiones o gastos susceptibles de acogerse al anticipo de la deducción.

La diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá mediante orden foral el modelo de solicitud de anticipo de las deducciones y los plazos y formas de presentación, así como otros aspectos relacionados con su aplicación anticipada. La orden foral fijará, asimismo, la fecha límite de presentación de solicitudes.

9. El incumplimiento de la condición de anticipar voluntariamente la obligación TicketBAI en las condiciones establecidas en los artículos 1 y 2 del Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio citados anteriormente, determinará la obligación de devolver las deducciones anticipadas en virtud de lo dispuesto en este artículo.

En tal caso, la o el contribuyente deberá sumar a la cuota líquida del impuesto sobre la renta de las personas físicas o a la cuota efectiva de los impuestos sobre sociedades o sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, según corresponda, devengada en el ejercicio en que se haya incumplido la condición, las cantidades indebidamente deducidas de forma anticipada, más los intereses de demora correspondientes. No obstante, la o el contribuyente podrá optar por realizar dicho ingreso en un momento anterior.

Disposición final primera. Modificación de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se modifican los siguientes apartados de la disposición adicional trigésimo sexta de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. El apartado 1 queda redactado en los siguientes términos:

«1. Desde el 1 de enero de 2020 hasta el 31 de diciembre de 2022, las y los contribuyentes que lleven a cabo actividades económicas podrán aplicar la deducción establecida en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en los términos y condiciones establecidos en la misma, y con las especialidades contenidas en esta disposición adicional.»

Dos. Se deja sin contenido el apartado 3.

Azken xedapenetako bigarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua aldatzea.

Aldatu egiten da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren sarre-
ra. Honela idatzita gelditzen da:

«1. Foru arau honen 122 bis artikuluan aipatutako behar-
kizunak betetzen dituen sistema informatiko bat erabiltzera be-
hartutako zergadunek 2020., 2021. eta 2022. urteetan eginda-
ko inbertsio eta gastuen 100eko 30 kendu ahal izango dute
beren kuota osotik, sistema horren ezarpenarekin erlazionatuta
badaude. Inbertsio eta gastu horiek honako hauek izan beharko
dute:»

*Azken xedapenetako hirugarrena. COVID-19aren bigarren
olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako
neurriei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-
Araua aldatzea.*

Edukirik gabe uzten da COVID-19ren bigarren olatuaren on-
dorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzko aben-
duaren 1eko 11/2020 Foru Arauaren 15. artikulua 5. apar-
tatu.

*Azken xedapenetako laugarrena. TicketBAI betebeharra
borondatez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurriei buruz-
ko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Araua aldatzea.*

Aldaketa hauek egiten dira TicketBAI betebeharra boronda-
tez ezartzea sustatzeko presazko zerga neurriei buruzko uztaila-
ren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauan:

*Bat. 4. apartatu bat gehitzen zaio 1. artikuluari, honako
eduki hau duena:*

«4. Artikulu honetan ezarritako baldintzetan TicketBAI be-
tebeharra borondatez aurreratzeko baldintza ez betetzeak bere-
kin ekarriko du artikulu honetan xedatutakoaren arabera aplika-
tutako kenkariak itzultzeko beharra.

Kasu horretan, zergadunak bidegabe kendu dituen kopu-
ruak eta berandutze interesak gehitu beharko dizkio baldintza
bete ez den ekitaldian sortutako pertsona fisikoen errentaren
gaineko zergaren kuota likidoari edo sozietateen gaineko zerga-
ren edo establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoilia-
rren errentaren gaineko zergaren kuota efektiboari, betiere da-
gokionaren arabera. Hala ere, zergadunak aukeran izango du
ordainketa hori lehenago egitea.»

*Bi. 2. artikulua edukia 1. apartatu gisa identifikatzen
da, eta 2. apartatu bat gehitzen da, eduki hau duena:*

«2. Artikulu honetan ezarritako baldintzetan TicketBAI be-
tebeharra borondatez aurreratzeko baldintza ez betetzeak bere-
kin ekarriko du artikulu honetan xedatutakoaren arabera aplika-
tutako kenkariak itzultzeko beharra.

Kasu horretan, zergadunak bidegabe kendu dituen kopu-
ruak eta berandutze interesak gehitu beharko dizkio baldintza
bete ez den ekitaldian sortutako pertsona fisikoen errentaren
gaineko zergaren kuota likidoari edo sozietateen gaineko zerga-
ren edo establezimendu iraunkor bidez aritzen diren ez-egoilia-
rren errentaren gaineko zergaren kuota efektiboari, betiere da-
gokionaren arabera. Hala ere, zergadunak aukeran izango du
ordainketa hori lehenago egitea.»

*Azken xedapenetako bosgarrena. Araugintzako ahalmena
ematea.*

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Depar-
tamentuko foru diputuari ahalmena ematen zaie foru dekretu-
arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak
eman ditzaten.

*Disposición final segunda. Modificación de la Norma Foral
2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Te-
rritorio Histórico de Gipuzkoa.*

Se modifica la introducción del apartado 1 de la disposición
adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de
enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de
Gipuzkoa que queda redactado en los siguientes términos:

«1. Los contribuyentes que estén obligados a la utilización
de un sistema informático que cumpla los requisitos a los que
hace referencia el artículo 122 bis de esta norma foral, tendrán
derecho a una deducción en la cuota íntegra del 30 por 100 del
importe de las inversiones y de los gastos realizados en los años
2020, 2021 y 2022, relacionados con su implantación, que se
especifican a continuación:»

*Disposición final tercera. Modificación del Decreto Foral-
Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas tributarias
urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del COVID-19.*

Se deja sin contenido el apartado 5 del artículo 15 del De-
creto Foral-Norma 11/2020, de 1 de diciembre, sobre medidas
tributarias urgentes para paliar los efectos de la segunda ola del
COVID-19.

*Disposición final cuarta. Modificación del Decreto Foral-
Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes
de fomento de la implantación voluntaria de la obligación Ticket-
BAI.*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto
Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias ur-
gentes de fomento de la implantación voluntaria de la obliga-
ción TicketBAI:

*Uno. Se añade un apartado 4 al artículo 1, con el siguien-
te contenido:*

«4. El incumplimiento de la condición de anticipar volunta-
riamente la obligación TicketBAI en las condiciones establecidas
en este artículo, determinará la obligación de devolver las deduc-
ciones aplicadas en virtud de lo dispuesto en este artículo.

En tal caso, la o el contribuyente deberá sumar a la cuota lí-
quida del impuesto sobre la renta de las personas físicas o a la
cuota efectiva de los impuestos sobre sociedades o sobre la
renta de la renta de no residentes que operen a través de esta-
blecimiento permanente, según corresponda, devengada en el
ejercicio en que se haya incumplido la condición, las cantidades
indebidamente deducidas, más los intereses de demora corres-
pondientes. No obstante, la o el contribuyente podrá optar por
realizar dicho ingreso en un momento anterior.»

*Dos. El contenido del artículo 2 se identifica como aparta-
do 1, y se le añade un apartado 2, con el siguiente contenido:*

«2. El incumplimiento de la condición de anticipar volunta-
riamente la obligación TicketBAI en las condiciones establecidas
en este artículo, determinará la obligación de devolver las deduc-
ciones aplicadas en virtud de lo dispuesto en este artículo.

En tal caso, la o el contribuyente deberá sumar a la cuota lí-
quida del impuesto sobre la renta de las personas físicas o a la
cuota efectiva de los impuestos sobre sociedades o sobre la
renta de la renta de no residentes que operen a través de esta-
blecimiento permanente, según corresponda, devengada en el
ejercicio en que se haya incumplido la condición, las cantidades
indebidamente deducidas, más los intereses de demora corres-
pondientes. No obstante, la o el contribuyente podrá optar por
realizar dicho ingreso en un momento anterior.»

Disposición final quinta. Habilitaciones normativas.

Se faculta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la diputada
o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas
para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarro-
llo y aplicación del presente decreto foral-norma.

Azken xedapenetako seigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko irailaren 7a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jokin Perona Lerchundi.

(5892)

Disposición final sexta. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 7 de septiembre de 2021.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jokin Perona Lerchundi.

(5892)